

Bildu udal taldeak aurkezten du Azkoitiko Herrira bilgunearen Mozioa:

MOZIOA, AZKOITIKO UDALAREN OSOKO BILKURARI AURKEZTUA

Azkoitiko Herrira bilguneak mozio hau aurkezten du hurrengo osoko bilkuran onar dadin:

ZIOEN AZALPENA

HERRIRA mugimenduak, Giza Eskubideen Deklarazioaren edukia aintzat harturik, euskal presoek aplikatzen zaizkien espetxe-neurri salbuespenezkoak indarrik gabe uztea eskatzen du.

Zehazki, sakabanaketa-politikari amaiera ematea eskatzen du, kartzelan dauden pertsonen eskubidea baitute zigorra etxetik hurbil betetzeko. Eskatzen du, bestetik, gaixotasun larria duten hamahiru presoak libre gelditu daitezela, eta Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia bete dadila, eta beraz, aska ditzatela zigorra bete duten 67 presoak.

Salbuespen neurri hauek sufrimendu handia eragiten dute gizartean, zuzenean neurri horiek jasaten dituztenei, baita gizarte osoari ere, apustu garbia egin baitu bakearen eta giza eskubideen errespetuaren alde. Eta sufrimendu hau buka dadin, neurri hauek desagerrarazteko, aski litzateke legeria arrunta aplikatzea.

HERRIRAK egiaztatu du gehiengo handiak bere egiten dituela aipatutako eskaerak. Horregatik, proposamena egiten die herritarrei giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko, gutxienekoen taula bat presoek eta erbesteratuen problemari heltzeko, modu eraikitzailean eta egiazko konponbideak bilatu nahian betiere.

Eskaera honen atzean gizartea dagoela ikusarazteko, akordio sozial zabal honen ispilu izan dadin, HERRIRA mugimenduak manifestazio handi baterako deia egin du. Mobilizazioa Bilbon izanen da, urtarrilaren 12an, goiburu honekin: "Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira".

Aldi berean, Azkoitiko Herrira bilguneak "Eskubide guztien jabe, Euskal Presoak Euskal Herrira" lemapean manifestazioa deitu du abenduaren 31rako, arratsaldeko 6 t'erdietan plazatik hasita.

Horregatik guztiagatik, ERABAKI hauek hartzeko eskatzen diogu Azkoitiko Udalari:

1.- Espainiako Gobernuari eskatzea presoek eta haien hurbilekoen giza eskubideak errespetatzen dituen espetxe politika aplikatzeko. Neurri hauek zigorra bizilekutik hurbil betetzeko eskubidea eta osasun eskubidea bermatu behar dituzte, baita beraien zigorra bete duten presoek askatasuna eta zigorraren 3/4ak (edo 2/3ak) bete dituzten baldintzapeko askatasuna.

2.- Udalaren kezka adieraztea astebururo presoen senitarteko eta lagunek sufritzen duten arriskua dela-eta, eta elkartasuna adieraztea sakabanaketaren biktima guztiei.

3.- Aditzera ematea Udala prest dagoela herriko bizilagun presoen giza eskubideen defentsan lan egiteko, eta haien senitarteko eta hurbilekoen egoera arintzeko.

4.- Horregatik guztiatik, udal honek bat egiten du Azkoitiko Herrira Bilguneak deiturik abenduaren 31an Azkoitian eta Herrira mugimenduak deiturik urtarrilaren 12an Bilbon "Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira" goiburuarekin eginen diren mobilizazio orokorrarekin, eta adierazten du prest dagoela akordio sozial zabal horren alde lan egiteko.

5.- Udal honek erabaki honen berri emanen die herritarrei, eta bakearen eta giza eskubideen errespetuaren aldeko lanean inplikatu daitezzen animatuko ditu udalerriko bizilagunak.

Azkoitiko HERRIRA bilgunea

Bildu udal taldearen bozeramailea

A handwritten signature in blue ink, consisting of a stylized, cursive script that starts with a large 'E' and ends with a long, sweeping tail.